

FUNTSEZKO JARDUERA

Funtsezko jarduerak enpresa batek arrakasta izateko egin behar dituen jarduerak dira. Gure kasuan hiru jarduera kontuan hartuko ditugu bereziki: ekoizpena, webgune eta sare sozialen kudeaketa eta arazoak konpontzea. Honen bitartez, gure produktuak ahalik eta arrakasta gehien izatea eta beste enpresetatik bereizten gaituan zerbait sortzea lortu nahi dugu.

1. Ekoizpena

Gure enpresa manufaktura-enpresa bat denez, funtsezko jardueren artean ekoizpena da garrantzitsua. Lehenengo, gure produktuaren diseinua egin dugu. Behin hori edukita produktua ekoitzi egiten dugu eta beharrezkoa den kasuetan arbelen tamainetara egokitu egiten dugu. Bukatzeko, instituzioetara eramaten dugu eta bertan muntatu egiten dugu.

2. Webgune eta sare sozialen kudeaketa

Bezero berriak erakartzeko eta gure enpresa aurrera egin ahal izateko, webgunearen eta sare sozialen kudeaketa oso garrantzitsua izango da. Gure enpresak Instagram kontu bat izango du eta bertan produktuaren argazkiak, funtzionamendua azaltzen duten bideoak eta prezio edo beherapenen informazioa txertatuko ditugu. Horrez gain, webgune bat ere sortuko dugu eta hor Instagrameko kontuan baino informazio gehiago eta zehatzagoa txertatuko dugu. Esate baterako, prezioarekin lotutako informazio guztia, likido garbitzailearen ezaugarrien eta prezioen informazioa eta gure enpresako langileek produktua instituzioan bertan muntatzeko aukera webgunean txertatuko dugu.

3. Arazoak konpontzea

Guretzat oso garrantzitsua da bezeroak izan ditzaketen zalantza edo arazo guztiak ahalik eta hobekien argitzea. Era berean, garrantzi handia ematen diogu bezeroen erosotasunari. Horregatik, telefono eta helbide elektroniko bat izango dugu bezeroak gurekin zuzenean harremanetan jar ahal izateko eta zalantza guztiak era errazean argitu ahal izateko. Hori nahikoa ez bada, gure bulegora gerturatu daitezke zalantzak guri azaltzeko eta gu ahal dugun hobekien haiek laguntzeko.